

**2004KO IRAILAREN 2AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bia.

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta laua.

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Jon Olano Arrese
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
Julio Herreros Serna
Iñaki Saldaña Herrero

ETORRI GABEA: Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jose Antonio Sanchez Gutierrez
Alfonso Segade González
María Pilar Vispo Chamosa
Gonzalo Zaldo eta Arana

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- 6. SEKTOREARI BURUZKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA:

6. Sektorean eraikigarri aprobetxamendu-baldintzen zuzenketa.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA) proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2004ko otsailaren 26ko eta apirilaren 1eko datekin, Udalbatza Osoak behin-behineko onespena eman zien, 6. Sektoreko Arau Subsidiarioen aldaketa eta Egitasmo Partzialaren dokumentuei eta Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zituen behin betiko onespena emateko.

Hala ere, 6. Sektorea ordenatzeko aukerak zehatzago aztertu ondoren, Alkatetza honek Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

- **Lehenik**. Eremu horretarako Beasaingo Arau Subsidiarioetako aldaketa espedientean aurreikusten diren aprobetxamendu baldintzak doitzea, eraikigarria den sabaiak gehienera ere 38.500 m² izan dadin.

Era honetan, beheko oineko eraikigarritasuna eta okupazioa 1.000 m²tan handitzen da.

Halaber, lursailen azalera ibai ibilguaren mugaraino doitzeagatik, Sektorearen azalera zuzendu egiten da eta 41.034 m²koa izatera pasatzen da.

Bi zuzenketa horietatik, aprobetxamendu-tipo berria ondorioztatzen da, hain zuzen ere, 0,463 m²/m².

Honekin batera doa 6. Sektoreko arauzko fitxa berria.

- **Bigarren**. Egitasmo Partzialaren Memoriaren “VI” ataleko koadroan aurreikusitako aprobetxamendu tipoa zuzentzea, laugarren ataleko (Egitasmo Partzialaren ordenantza arautzailearen fitxa urbanistikoak) zenbakiei doituz.

- **Hirugarren**. Erabaki honen berri, Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea, eta 6. Sektoreko arauzko fitxa berria eta aipatutako sektorearen Egitasmo Partzialaren VI atala, laukoizturik eta behar den moduan diligentziaz igortzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau sinatu dut.